



MAIATZAREN 5ean, ZEANURIN, ERROTARIK ERROTA

Umeekin eta familian egiteko aproposa da Zeanuriko Erroten XVII. Ibilaldia

Maitzaren 5erako prestatu du Joko Alai Elkarteak 2024ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamazazpigarren edizioa beteko du oinezko martxa honek eta antolatzaileek adierazten dutenez helburuak hasierako berberak dira: “alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurbiltzen diren bisitariei Zeanuri (Bizkaia) eta bere auzoak ezagutzera ematea; eta, bestetik, Zeanuriren historian errotek izan duten garrantzia ezagutaraztea”. Ez dira gutxi, izan ere, herri honetan ezagutzen diren edota han-hemenka azaltzen diren errota edo erroten arrastoak: guztira hemezortzi —gehienak bertan behera utzita, baina beste batzuk zaharberrituta—, denak hidraulikoak. Ibilbidean zehar zazpiren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —**Errotabarrin**, **Ibargutxin** eta **Olabarrin**— sartu-irtena egiteko aukera izango dute.

Aurreko urteetako ibilbidearekin alderatuz, aurtengoan aldaketak egin dituzte antolatzaileek: “kontuan hartuz martxa hau familian eta umeekin egiteko aproposa dela, 4 kilometro laburtu ditugu, horrela errota eta instalazio ezberdinak lasaitasunez eta presarik gabe ikusteko aukera emanaz”.

Irteera herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; udaletxearen aurretik abiatuz lehenengo **Altzibergo** erroten ondotik igaroko dira ibiltariak eta 500 metro aurrerago **Errotabarrin** iritsiko dira: hemen sartu-irtena egiteko eta errota martxan ikusteko aukera izango dute. Jarraian Undurragako urtegiaren ertzetik aurrera egingo dute. Urtegia atzean utzi eta



Olabarriko anteparan lanean



Parte-hartzaileak aurreko edizio batean

Ibargutxiko errotarako bidea hartuko dute; hemen ere, atea zabalik izango dira eta nahi dutenek kuku bat egin eta errota lanean ikusteko aukera izango dute. Ibargutxitik berriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo diote —oraingoan beste aldetik—; urtegiaren presatik 100 metro aitzina, Alkiberren, indarrak berritzeko jan-edana banatuko da.

Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ondotik igaro ostean, azken kilometroa betetzen hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errota azalduko da, **Olabarrikoa** —Pujana familiak erabat zaharberritua—, eta sartu-irtena egiteko aukera izango da, Zeanuriko plazara iritsi eta ibilaldiari amaiera eman aurretik.

Ibilbidea osoa 14 kilometrokoa da, baina haurrentzat edo ondo prestatuta ez daudenentzat laburragoa, 7 kilometrokoa, egiteko aukera ere eskaintzen da eta hemendik Errotabarrin —itzulera bidean— eta Olabarri—helmuga puntutik 300 metro dago—bisitatzeko aukera ere badute.

Ibilbidea burutzerakoan, 14 kilometro eramango dituzte oinetan ibiltariak, baina ziur zitari erantzuteak mereziko diela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udaberriaren naturak azaltzen duen koloreen eta usainen sinfoniaz gozatzeko aukera izango baitute.



IBILALDIARI BURUZKO XEHETASUNAK

- * **Eguna:** maiatzaren 5a, igandea.
- * **Izena ematea:** 08:30etik aurrera, herriko plazan: 6 € / Joko Alai Elkarteko bazkideak: 4€/ 13 urtetik beherako umeak: doan.
- * **Irteera:** 09:00etan.
- * **Ibilbidea:** 14 kilometro. Haurrentzat ibilbide laburra: 7 kilometrokoa.
- * **Jan-edana:** Ibilbidearen erdialdean jan-edana banatuko da.
- * Ibilaldiaren hasieran **Errotabarriko** errotan sartu-irtena egiteko aukera izango dute ibiltariak, bosgarren kilometroan **Ibargutxikoan** eta azken kilometroan **Olabarriko** errotan.
- * **Antolatzailea:** Joko Alai Elkartea.
- * **Laguntzaileak:** Zeanuriko Udala, Grupo Solitium, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubilatuen Taberna, Zeanuriko Batzokia, Arratiako Gurutze Gorria, Gorbeialde, Beintxa Eraikuntzak eta Txapó Creativos.

ZEANURIKO ERROTAK


Ander Manterolak bere *Industrias tradicionales en Zeanuri(Bizkaia). I. Molinos harineros* ikerketa lanean dienez, XIX. mendearen amaierarantz Zeanurin sei burdinola eta hemezortzi errota zeuden. Ordutik hona jarduera biak indarra galduz joan dira, horrela burdinolen krisiak lantegi horien desagertzea ekarri zuen XIX. mendearen bigarren zatian. Gainbehera horren ondorioz, jende asko nekazaritzara itzuli zen; nekazaritzara lur gehiago zuzentzeak eta, aldi berean, gora egin zuten laboreen uztak ehotzeko premiak erroten beharrezana ekarri zuten. Ondorioz, burdinola batzuk errota bihurtu ziren, hori gertatu zen Lanbreaberekin, Ibargutxirekin, Altziberrekin eta Olabarrirekin.

Bestalde, erroten agonia XX. mendearen erdialderantz larriagotu egin zen. Duela 60 bat urte Zeanurin hamaika errota lanean bazeuden, 1979an hiruk bakarrik ehotzen zuten

Zeanurin ezagutu diren errota guztiak hidraulikoak izan dira eta udalerriko lau erreka nagusien inguruan eraiki ziren:

- * **Arratia erreka:** Lanbreabe, Ibargutxi, Alkiber, Errotabarri, Altziber eta Olabari.
- * **Beretxikortako erreka:** Goikoerrota, Erdikoerrota, Barrengoerrota eta Undurraga.
- * **Uribeko Erreka:** Atxiti, Intxaurbe, Axpe eta Zulaibar.
- * **Asterriko Erreka:** Ibarre, Landaburu, Akeuri eta Uribiarte.

Hemezortzi errota horietatik lau burdinola izan ziren: Lanbreabe, Ibargutxi, Altziber eta Olabari. Beste bi ola ere egon ziren: Olazar eta Undurragako Olabari.



Etniker Bizkaia-k egindako mapa.



SARTU-IRTEA EGITEKO HIRU ERROTAK: ERROTABARI, IBARGUTXI eta OLABARRI

Ibilbidean zehar zazpi errotaren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-irtena egiteko aukera izango dute.

- 1- **Errotabarriko errota:** Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eraiki zuten. Zeanuriko errotarik berriena da. Lehenago, ibaiaren beste aldean zegoen. Hiru harri ditu. 2015ean errota erabat zaharberritu egin zuen Manterola familiak.



Errota honetan, presa eta antepara konporta baten bidez daude lotuta eta ez kaltze baten bitartez. Zeanuriko gainontzeko errotetan ez bezala, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateratzen da, urak errekarara bideratzeko.

1975eko apirilean utzi zion lan egiteari. Azken errotaria Andres Aldekoa *Ane* izan zen.

Errotabarriko errota

- 2- **Ibargutxiko errota:** Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. mendean burdinola izan zen. Gaur egun harri bi baditu ere, hiru harrirekin egin zuen lan. Hirugarren harri horrek 1950erantz utzi zion lan egiteari.



1945ean errotaren azpiko aldean turbina eta generadore batez baliatuz argindarra ekoizten hasi ziren Ibargutxin, eta 1978ra arte gutxi gorabehera Alzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzen zuten elektrizitatea.

Ibargutxiko errotaren instalazioak guztiz zaharberrituta daude eta, oraindik, noizean behin etxerako garia edo artoa ehotzen du.

Azken errotari profesionala Gabriel Larrazabal izan zen. Bera hil ondoren, urte batzuetan, Satur bere semeak mantendu zuen errota martxan. 2019an Pedro Elexpek erosi zuen errota eta gaur egun bera da jabea .

Ibargutxiko errotaren errotapea



3- Olabarriko errota: Ibarguen kofradian dago. Jatorriz burdinola izan zen eta Zeanuriko patronoa zen Arriola familiaren jabetza. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu zuen, 1898ko azaroaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotaren kargu egin zen arte.



Olabarriko errota

XX. mendearen erdirantz Benigno Pujanak— Isidroren semeak— errota erosi egin zien Arriolarrei. Benignok errotari lanetan jardun zuen 1995eko urriaren 11n hil zen arte. Aitaren heriotzaren ondoren, Fermin semeak errotaren zaharbarritze lanei heldu zien.

Olabarriko errotak hiru harri ditu.

Errotaren ondoan burdinolaren arrastoak azaltzen dira. Burdinolan erabilitako balantza ere errotan gordetzen da.